

**Igorlea:** Erriberriko “Príncipe de Viana” HLHIPko irakasle taldea.

**Gaia:** Wifi sistema Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan.

Lankide agurgarriak:

Gure ikastetxea **ikasNOVA** eta **Hezkuntza Eraldaketa Digitaleko Planean** murgilduta dagoenez gero, Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasle taldeei zuzentzen gara, ikastetxeetan egiten ari den WIFI instalazio indiskriminatuak eta horrek, jadanik publikatu diren ikerketa anitzek frogatzen duten moduan, suposatzen duen osasun kalteak eragiten digun kezkatatik.

Emaitzek erradiazioen eraginpean gehiegi egoteak eragiten dituen kalteak anitzak direla frogatzen dute, eta horretaz gain, agerian jartzen dute teknologia hau tabakoa edota amianto bezain kaltegarria izan daitekeela, nazioarteko izen handiko zientifiko independenteen arabera. Haurren kasuan, adituen esanetan, kaltea askoz ere larriagoa izan daiteke haien sistema immunologikoa garapen bidean dago eta.

Hain zuzen ere, aurrean azaldutakoagatik, zuen laguntza behar dugu administraritzan segurtasuna eskatzeko bai ikasle zein irakasleentzat, haririk gabeko wifia, jada ikastetxe gehienetan dauden kable bidezko konexioengatik ordezkatzeko.

Halaber, neurri aringarri moduan aldaketa hori aurrera eramaten ez den bitartean, administraritzari **eskatzen diogu wifi etengailuen instalazioa**, routerrak, hauek erabiltzen ez direnean, itzaltzeko aukera izan dezagun.

Ugaria da gure eskakizuna babesten duen literatura zientifikoa. Bioinitiativek 2014. urtean egindako txostenak jasotzen ditu erradiazio ez ionizatzaileen eraginpe kronikoan jartzeak izaki bizidunetan dituen efektuak aztertu dituzten milaka ikerketen ondorioak. Hain zuzen ere, eta eskoletan egiten den wifia instalazioarekin lotuta, adierazten du “haurrentzat, azpipopulazio sentikor gisa, **30  $\mu\text{W}/\text{m}^2$  eta 60 $\mu\text{W}/\text{m}^2$  bitarteko kautelazko balioa** hartzen da zentuzko maila bezala, irrati-frekuentzia pulsatuen erradiazioekiko esposizio kroniko batentzat”. Beste alde batetik, jada **10  $\mu\text{W}/\text{m}^2$** tik aurrera kalte zelularra sumatzen duten ikerketak daude ere.

Bada, routerra duten ikasgeletan egindako neurketek **2000  $\mu\text{W}/\text{m}^2$  eta routerraren alboko geletan 400  $\mu\text{W}/\text{m}^2$  gainditzen dituzte!**

Aurrean aipatutako argudio eta azalpenei, erradiazio hauekiko esposizioa mugatu baita haurren kasuan hauek guztiz ekiditea ere eskatzen duten aditu eta nazioarteko erakundeen ebazpen anitzak gehitzen zaizkie. Europako Kontseiluko Legebiltzarrak 2011ko maiatzaren 27ko 1815 EBAZPENean, Europako gobernuari mota guztietako erradiazioen esposizioa murrizteko beharrezkoak diren neurriak hartzea eskatzen die, haurrak erradiazio hauekiko bereziki kalteberak direla agerian uzten duen bitartean (8.3.2. puntuan). Bitxia da Nafarroako Parlamentua ebazpen honetara atxikitzen dela jakitea (2014ko irailaren 26ko NAO 103).

Urte berdineko ekainean, OMEk mundu mailako komunikatu baten bidez baieztatu zuen IARCK (Minbizien Ikerketarentzako Nazioarteko Agentzia) maiztasun handiko erradiazioak (WIFIa, mugikorrak. etab.) 2B taldean sailkatzen dituela, hau da, gizakientzat minbizi-sortzaile posibletzat hartzen dira.

Egiaztatu da eremu magnetikoekiko esposizioak epe laburrean zorabioak, buruko mina, antsietatea, narritadura, agresibitatea, neke kronikoa, palpitzioak eta arritmiak eta epe luzera, batzuetan gaitasun kognitiboetan kalte konponezinak (**berehalako oroimenaren galera, arreta arazoak, arreta defizita, hiperaktibitatea**) edo **minbizia eta haurren leuzemia** akutua bezalako gaixotasun larriak eragiten dituela.

Datu hauek kontuan hartuta, eta ikasleria WIFlaren erradiazioen eraginpean 5 (HH eta LHn) eta 6 (DBH) orduz daudela ezagututa, ikastetxeen laguntza beharrezkotzat hartzen dugu teknologia honen ordezkapena eskatzeko, aurrean azaldu den bezala, kable bidezko konexioengatik. Izan ere, kable bidezko konexioak kalitate handiagoa eskaintzeaz gain, datuen babesa bermatzen du, eta batez ere, ez du irradiatzen.

Gure inguruko beste herrialde batzuk, Frantzia, Ingalaterra, Alemania, Kanada, Austria edo Suitza bezala, jada, eskoletatik, liburutegi zein beste leku publikoetatik WIFIa kentzen ari dira eta horregatik, guk ere, defendatu nahi dugu bai ikasleen zein gure osasunarekiko begirunea.

Administraritzatik ematen den erantzuna oraingo teknologiak etengailuen instalazioa eragozten duela da, baina beste profesional batzuk ez dute hori egiteko arazorik aurkitzen. Beste alde batetik ere, Administraritzak une honetan kable bidezko sistema jartzea bideraezina dela defendatzen du (Googlek hezkuntzarako lanerako tresna desberdinak sortu ditu eta horietako batzuk soilik WIFI bitartez funtzionatzen dute, adibidez, Chromebookak), baina ez du beste aukerarik eskaintzen. Horregatik, inizatiba edo eskaera hau laguntzen duten ikastetxe talde bat osatu nahi dugu Administraritzaren erantzuna lortzen saiatzeko eta horren ondorioz, konponbide bat.

Zuen arreta eta denbora aldeztu aurretik eskertuz, eta eskaera hau babestuko duzuelakoan, adeitasunez agurtzen zaituztegu.

Oliten, 2020ko urtarrilaren 14an.